

AURKIBIDEA

0 - SARRERA

1 - BILAKAERA

1.1. - AISIALDIA ETA EUSKARA

1.1.1. - AISIALDIA NORMALKUNTZARAKO TRESNA

1.1.2. - EUSKARA ELKARTEEN IHARDUERA

1.1.3. - EUSKARA ELKARTETIK AISIALDI ELKARTERA

2 - EGUNGO EGOERA

2.1. - HAUR ETA GAZTEEN AISIALDI MULTZOA

2.1.1.- AISIALDI ANTOLATUA

2.1.2.- AISIALDI NATURALA





3 - AHULEZIAK ETA INDARGUNEAK

3.1 - AHULEZIAK

3.1.1 - METODOLOGIAREN ZEHAZTAPENA

3.1.2 - AISIALDI MULTZOETAN OSAGARRITASUNA

3.1.3 - BEGIRALEEN KALITATEA

3.1.4 - AISIALDIAREKIKO ONESPEN FALTA

3.1.5 - BALIABIDE ETA ERREKURTSO GABEZIA

3.2 - INDARGUNEAK

3.2.1 - HERRIAREN ONERITZIA, INPLIKAZIOA ETA PARTAIDETZA

3.2.2 - AISIA BIZITZAKO EDOZEIN ESPARRUTAN EMAN DAITEKE

3.2.3 - INDAR EZBERDINEN KOORDINAZIOA

3.2.4 - SAREEN INTERBENTZIOA

3.3 - AISIALDI MULTZO EZBERDINEN AHULEZIA ETA INDARGUNEA

4 - PROPOSAMENAK



0 - SARRERA

Pertsonen oinarrizko beharrak gainditu ondoren betetzeko gelditzen den denborari aisialdia deitzen diogu.

Dagokigun esparruan zentratu, haur eta gazteen munduan, familiako bizitza eta hezkuntza reglatuak betetzen dute lehen fasea eta ondorengo ekintza multzoari edo denbora erabilpenari aisialdia deitzen diogu.

Aisialdia hizkuntz normalkuntzako tresna bezala erabiltzen dugun erakundeok, arlo honetan sortzen diren gabeziei aurre egiteko erantzunkizuna dugu.

Aisialdia gune natural eta antolatuetan banatzen da eta bietan gure hizkuntzaren normalkuntza egoera naturala izatera iritsi behar da. Interbentzio esparruak definitu ditugu. Tresnak berriz, pertsonen nahiak asetzen dituzten ekintza multzoa izango dira.

Edozein aisialdi ekintza euskaraz antola daiteke. Modu honetan, hizkuntza bera bigarren planoan gelditzen da, ekintza da gizakia asetzen duena eta honen ondorioz hizkuntza naturalki erabiltzen da, komunikazio tresna gisa.

Pertsonak, aisialdia, bere burua aberasteko, ongi pasatzeko, kirolak egiteko, formakuntza jasotzeko esperientziak bizitzeko erabiltzen du, eta guzti hauek euskaraz izateko aukera izatea eskubide bat da.



Txosten honetako informazioa, 10 urteko haur eta gazteen aisialdi antolaketaren esperientzian oinarritzen da eta esperientzia hau ahalik eta zentzu orokorrean eta objetibotasunez biltzen saiatu gara.

Nahiz eta gure hasierako urratsak orain dela 10 urte izan, gogoan ditugu, egungo eginbeharrekin eta etorkizunerako asmoekin batera.





1 - BILAKAERA

1.1 - AISIALDIA ETA EUSKARA:

1.1.1 - AISIALDIA NORMALKUNTZARAKO TRESNA:

Aisialdiaren definizioa pertsonen bigarren mailako beharrak betetzeko denbora bezala aurkeztu da.

Euskararen normalkuntzan ere bigarren mailako lana egiten duela esan daiteke, baina pertsonekin gertatzen den bezala, bigarren mailako beharren asetzeak osotasun bat dakarkio.

Hizkuntzaren normalkuntza lanetan, hasierako eginbeharrak senitarteko trasmizioari eta ondoren hezkuntzari leporatzen zaizkie, lehen mailako erantzule bihurtzen direlarik.

Bi hanketako ahulkiek lez, euskarak duen bizilekua, bi puntak soilik kontuan izanda, ez da guztiz egonkorra eta aisialdi esparruaren lan osagarriarekin oinarritzko zutabeak ziurragoak egiten dira.

Esparru desberdinen elkarlana derrigorrezkoa da. Norabide berean, bakoitza dagoen lekutik abiatu beharra dago helmugara iristeko.

Indar guztien koordinazioa eta interrelazioa lortu behar da. Aldi berean, bakoitzaren indarrak aberastasunean eta gaur egungo errealitatean oinarritu behar direlarik.



Esan daiteke, aisialdiak baduela bere erantzunkizuna hizkuntzaren normalkuntza lanean eta honi aurre egiteko baliabideak prest izan behar ditu, bere esparruaren heldutasuna kalidadez lortuz, eta edozein eskaera edo gabeziari irtenbidea aurkitzeko ausardia.

1.1.2 - EUSKARA ELKARTEEN IHARDUERA:

Orain dela hamairu bat urte sortu ziren garai hartan herri mugimendu izena hartu zuten euskara bultzatzeko edo suspertzeko antolatu ziren taldetxoak.

Euskarak indartu beharra zuen eta nahiz eta instituzioek lehentasunik ez eman, herriak berak eman behar ziola bultzada pentsatu zen.

Herri bakoitzean bolondres gisa lanean hasi ziren hamarrekoren bat eta talde hau motorra izanik, momentuko egoeraren azterketa eginez herrian behar haundiena somatzen zuten esparruetan inziditu nahiean hasi ziren lanean, beti ere momentuko indarrak kontutan hartuz.

Emakumeen esparruan / lan munduan / dendarien esparruan / kultura arloan / e.a....

Talde honek inguruak berotu eta esparru bakoitzeko beste herritar batzuk jarri zituen martxan. Poliki poliki ikusten zen mugimendu biderkatzailea zela eta gero eta herritar gehiago inplikatur zihoazela.



Eskolak ere lanean ari ziren, hezkuntza munduan, euskararen bizitza kalitatea hobetu nahiean.

Hezkuntza reglatua lanean aritu arren, hutsune nabarmena ikusten zen, haur eta gazteekiko, eskolaz kanpo.

Alde batetik, ikastetxeetan ikasgai bezala ikasitako euskara kanpoan ere indartu beharra zegoen, bestela teoria hutsean gelditzeko arriskua ikusten zen eta eguneroko bizitzan erabili ahal izateko zailtasunak.

Bestalde, haur eta gazteen aisialdia ere, hizkuntz arloan, normalizatu beharra zegoen, ez baitzen erre-ala haur hauek bizitzan gustoko zuten arloa erdaraz bizitzea eta hain gustoko ez zutena edo inposatutakoa berriz, euskaraz.

Hasiera batean ikastetxeekin elkarlanean, eskola ordutik kanpoko ekintzak bitarteko izanik, hezkuntza arloko errefortzu gisa, euskara elkarteak hasi zen lanean.

Ikastetxeek haurrak animatu eta euskara elkarteek ekintzak burutu. Gehienbat B ereduko hurrekin hasi zen lanean, beharra nabarmenagoa baitzen hauengan.

Ondoren, eremua piska bat gehiago zabalduz, D eredukoekin ere harremanetan jartzeko, Udaleku irekiak antolatzen hasi ziren urtez urte.



Lehenengo ekintza (Ikastetxe-Euskara Elkarte) hezkuntza inguruan garatzen zen eta hizkuntza indartzea zuen helburutzat. Bigarren ekintza, berriz, (udalekuak), uztailean zehar haurren oporrak aprobetxatuz beraien aisialdia bete eta ondo pasatu ahal izateko bitartekoarekin indartzen zen hizkuntza.

Poliki- poliki ezberdintasunak begibistan jartzen hasi ziren:

1. - Eskolarteko lanaren osagarri eta lagungarri zuzena.
2. - Haurraren eta gaztearen aisialdi naturalean presentzia.

Nahiz eta herri euskara elkarteen hasierak Arrasate edo Deba Bailara inguruan eman, piskanaka, Euskal Herriko probintzia ezberdinetako herrietan zabaltzen hasia da aspalditxoan euskara elkarteen sukarra; eta beste esparru batzuen artean aisialdiaren arloan beherehala hasten dira lanean.

Bilakaera honen laburpen gisa, puntu batzuk azpimarratzen ausartzen gara hasiera fasean dauden herri eta mugimenduentzako baliogarriak izan daitezkeenak, eta beti kontuan hartu beharko da bakoitza dagokion errealitatean kokatu behar dela eta dagokion errealitateari aurrera egin.

- Egoera errealaz aztertu eta kohentziarekin aurrerapausoak ematen hasi.
- Euskararen alde sensibilizatuta daudenen arteko loturak eta elkarlana sendotzea eta bultzatzea.
- Iniziatibak sortzeko formakuntza bultzatzea. Euskararen normalizazioa helburutzat izango dutenak.
- Motibatutako jende gazteari segurtatea edo babesa ematea, ausartak izan daitezen aurrera egiteko.



- Ekintza txikiena ere, ezer baino gehiago dela beti argi izatea eta balorazioetatik bide berriak jorratzen jakitea.
- Elkartegintzaren filosofia zabaltzea. Herriaren babesa eta onespena lortzea, iritzi desberdinetako herritarrak antolaketara inguratzuz.
- Normalkuntzaren gabeziak zerrendatu eta irtenbideak bilatu.
- Indar desberdinen elkarlana bultzatzea.
- Euskara bultzatzeko metodokogiak sortu eta daudenak ezagutzea.
- Herri mugimendua izteaz gain, motorra edo bitartekaria izango den figura sortzea (momentuan ahal den dedikazioarekin).
- Egoera bakoitzari irtenbide egokiak aurkitu eta arlo hontan lanean dihardugunon artean koordinazio guneak bultzatzea behar beharrezkoa da.





2 - EGUNGO EGOERA:

2.1 - EUSKARA ELKARTETIK, AISIALDI ELKARTERA:

Ekintza puntual batekin hasi daitekeen aisialdi iharduera bat urte osoko iharduera bilduma bat osatzera irits daiteke. Egun bateko festa batean hasten den lana, zazpi urtera (udaleku, neguleku, larunbatero, ludoteka, gazte-txoko, festa erraldoiak) hainbat eta hainbat zerbitzu desberdinen multzoa osatzera iristen da. Euskara elkartearen barruan egun erdiko lan dedikaziotik hasi eta bapatean 7 lagun plantillan eta 60 begirale ekintza desberdinetan bueltaka ibiltzea posiblea da. Aldi berean 900 herritarren babes eta oiniritzia bilduz.

Zerbitzu desberdinen erabiltzaile kopuruaren gorakadak segurtasun mota desberdinak aportatzen hasten da. Alde batetik, gero eta hurbilago sentitzen hasten da helburuetatik eta iharduerak sinesgarritasuna irabazten du. Bestalde, ekintza multzoa zabaltzen den eanean, erabiltzaileen adin esparrua ere handituz joaten da (hasierako 6-9 urtetatik, 2-17 urte bitartera zabalduz). Haur, gazte eta gurasoen partaidetza eta adostasuna lortuz.

Guzti honek denborarekin azpiegitura sendo bat sortzen du eta beharrak handituz doazen eanean, lortzen diren errekurtsoak ere handituz joaten dira.

Denborarekin, dinamikak eta iharduera multzoak berak, euskara elkartetik irten eta elkarte propioa sortzera bultzatuko du.



Elkarteko sail bateko azpiegitura sendoak eta heldutasun maila batek, elkarteari berari beste iharduera desberdinetan aritzeko mugak jar diezaizkioke, gero eta dedikazio gehiago eskatzen duelako saila handitzen dihoan einean.

Zilbor-estea mozteko garaia etorri da. Etorkizunerako bere plangintza propioa landu beharko du baina inoiz ez du ahaztuko nondik datorren, hau da non eta zertarako sortu den eta norantz abiatu behar den

Bakoitza dagokion esparruan egiten ari den lanaren berri eman beharra dago. Arlo bakoitzak bere erantzunkizunak hartuz eta lan osagarri desberdinen artean osotasunera iritsiz.

Herri desberdinetan eta biztanle kopurua kontutan izanik, euskara elkarteak bere baitan izan ditzake iharduera desberdinak, ez dago beti banaketa egin beharrik baina funtsezkoa da arlo bakoitzaren espezializatzea eta heldutasuna lortzea, eremu bakoitza osoa eta profesionala izan behar da gaur egungo errealtatean beste edozein eskaintzaren ondoan konpetitiboa izateko.

2.2 - HAUR ETA GAZTEEN AISIALDI MULTZOA:

Eskola eta familia dira pertsonaren lehen urteetan hizkuntz transmizioaren lehen erantzuleak. Adinak gora egiten duen einean aisialdiak protagonismoa hartzen du normalkuntzarako egin beharretan.





Haur eta gazteen denbora zatiketa, hezkuntza, familia eta aisialdia bezala definituz gero, aisialdiari dagokion esparrua oso zabala dela argitu behar da. Bi zatiketa orokor egin daitezke, aisialdi naturala edo norberak sortu eta antolatutakoa eta aisialdi antolatua edo zuzendua, entitate, talde edo norbaitek zuzentzen duena.

Aisialdia normalkuntzarako tresnatzat erabiltzen dugunon artean, beste inork arlo honetan erantzunkizunik hartzen ez duen bitartean, erantzunkizun honen erantzule sentitu beharko dugu. Zama handi hau urratsez-urrats jasotzen joan behar da eta erantzunkizunaren elkarbanaketa bat bideratzeko ahaleginak egin beharko dira.

Aisialdi mota desberdinen definizioa eta egoeraren oinarritzko ikuspuntu labur bat azalduko da ondorengo lerroetan:

2.2.1.- AISIALDI ANTOLATUA:

-Ikastetxeetako aisialdia:

Euskal Herriko ikastetxe gehientsuenek aisialdi ekintza minimo batzuen eskaintza betetzen saiatzen dira.

Batzuetan ekintzen antolaketa ardura guraso elkarteetatik bideratzen da eta beste batzuetan zentroak berak hartzen du erantzunkizuna.



Ekintzei dagokienez gehienetan kirol munduan zentratzen dira eta irakasle edo begiraleak hizkuntz prestaketarik gabeko pertsonala izaten da. Eta bigarren planoan beste hainbat esparru lantzen da, hala nola; informatika, hizkuntzak, margoketa, etab...

Baliabide edo eskaintza eguneratuaren falta salatzen dute antolatzaileek. Kultur ikuskizunak antolatzeko zailtasunak dituztela aitortzen dute, gutxi eta garestiak direla salatuz.

Ikastetxeetako aisialdia ezinbestekoa da, barne produkzioa sustatzeko, herri edo inguruko oinarrizko kulturaren zabalkundea bultzatzeko, adin, maila edo eredu desberdinen arteko trukaketa ekintzak bideratzeko, etab...

Antolaketa ardura hartzeko ajenteen beharra somatzen da, lana espezializatuz, kalitate baten bila.

-Hezkuntza ez reglatua:

Hezkuntza reglatuaren osagarri bezala sortutako arlo honek azken 25 urteotan haskunde zabala izan du eta profesionalizazio eta espezializazio batera iritsi da gaur egun.

Espazio honetan, euskararen presentzia ez da abiadura berdinean joan eta normalkuntza egoera oraindik fikzioa dela aitortu behar da.

Euskararekiko sensibilizazioa, borondatea eta gaur egungo errealitateari aurre egiteko garatu beharrezko





erronka bezala jasotzen da, baina orainarte ohitura eta baliabideen egokitzapena ez da intentzioarekin gauzaten.

Irakasleen hizkuntza maila, erabiltzen den materiala, antolakuntza guztiz pribatua, etab.. erantzunkizuna eskatzeko bide zailak dira eta, besteak beste, arlo honi dagokion egin behar bat da.

Orokorrean euskararen presentzia normalizatuak zerbitzu guztiei eskaintzen dion balio erantsiaz, etorkizuneko ikuspegiak eta zerbitzu prestaketa osoaren ikuspegiak jabetu behar dira zerbitzu hauen ugazabak.

- *Kirola:*

Egun, kirola aisialdi ekintza masiboa dela ziurtatu daiteke. Bai aktiboki bai pasiboki partaide kopurua handia dago arlo honetan.

Kirol komunikabideek hizkuntz erabileraren arlorrean erantzunkizun haundia daukate.

Kirolaren bidez herriari aberastasun maila bat ematen zaio eta askotan pertsonak herriarekiko identifikazioa sortzeko tresna ere izaten da.

Arlo honen ahalmena haundia da, talde giroak sortzeko eta kirola gizarteko esparru bat denez, inguratzeko duten elementu guztiek hizkuntza jarrera bat dakarte erantsirik.



Erantzunkizuna, komunikabideekin batera, prestaketari dagokio, antolaketa erakundeei, haur eta gazteen kirol prestaketan erabiltzen diren hizkuntz jarrerei...

- *Herri mailako kultur ikuskizunak:*

Udaletxeetako kultur eskaintza gero eta zabalagoa da, administrazioak antolatzen dituen ekintza zirkuitoak ere aukera aberasten du.

Horrez gain, herri ekimenak sortutako talde desberdinak ere noizbehinka ekintza bildumak ere eskaintzen ditu.

Zine emanaldi, antzerki, musika, kontzertu, pailaso emanaldi, dantzaldi, kantaldiek, e.a... osatzen dute ikuskizunen zerrenda.

Adibidez zinearen arloan, goi mailako produkzioei dagokionez, zailtasunak daude berriena, azkena, modernoena euskaraz lortzeko. Euskarara itzuli orduko zaharkituak egoten dira. Bide hau arintzeko urratsak eman beharko lirateke.

Herri mailan egon daitezkeen sorkuntzak bultzatzea eta hauek kanporatzea denon esku dagoen irtenbide bat litzateke. Autosorkuntza kulturala bide bat litzateke, askoz ere jarrera aktiboagoa eskatzen du eta partaideen hurbiltasunak ere ikusle kopurua ziurtatzen du.



Herri mailako sorkuntza maiz ezezaguna da eta gutxiegi baloratua.

- *Aisialdirako espazio zuzenduak:*

Izenburu honetan ondorengo multzo hau biltzen dugu: Ludotekak, gazte txokoak, liburutegiak, bideotekak, etab...

Publikoaren zerbitzura dauden zerbitzu publiko hauek sarritan euskaraz lantzen diren proiektuak izaten dira, eta beste batzuetan, berriz, erdera hutsean gauzatzen dira. Hizkuntza definizioa inizatiba hartzen duenaren pertsona pribatu edo juridikoaren arabera izaten da sarritan.

Garrantzitsua da hemendik aurrera sortuko diren honelako proiektuei jarraipena egitea, euskararen presentzia aldarrikatuz.

Sortuta eta martxan ari diren proiektuetan berriz, sentsibilizazioaren bidez euskararen presentzia ezarriz joan beharko ginateke.

Aisialdi zuzendua oso bitarteko egokia da euskararen erabilera sustatzeko.

- *Elkartegintza:*

Badira herri batzuk beste batzuk baino erreztasun edo ohitura haundiagoa dutenak elkarteak sortzerako orduan.



Herriaren kezkak eta inizatibak kontutan izanda, ekintzak praktikara eraman ahal izateko sortzen dira. Dantza taldeak, musika taldeak, antzerki taldeak, argazkilariak, mendizale taldeak, kirol taldeak...

Talde hauek aberasgarriak dira gizakia bera asetzeko, eta herriarentzat ere oso aberasgarriak suertatu dira. Zer esanik ez Euskal Herrian kultur arloari ematen dion bultzada.

Talde hauek bitarteko egokiak dira euskararen presentzia indartzeko. Beraz, ahalegindu gaitezten talde hauek sortzerakoan edo beraietan parte hartzerakoan euskararen presentzia ziurtatzen.

Normalki sensibilizazio maila garrantzitsua izaten dute eta nahiz eta jarraipena egitea zaila suertatu, udalekin izaten dituzten harremanak izan daitezke jarraipen lana egin dezaketena. Bakoitzaren iharduerarako beharrezko baliabideak euskaraz eskainiz, bai materiala edo bai pertsonen prestaketa....

- *Komunikabideak:*

Haur eta gazteen aisialdian denbora garrantzitsua betetzen dute komunikabideek, eta batez ere telebis-tak.

Azken urteotan ahalegin bereziak egin badira ere, erdal komunikabideen aukera askoz zabalagoa eta aberatsagoa izateak asko mugatzen du euskal eskaintzaren etekina. Komunikabideen arteko negoziaketak bultzatzea goi mailako erantzunkizunak dira.



Hurbilagoko lanak mota ezberdinetako aldizkariekin eta herri komunikabideen erabilpenekin lotu daitezkeenak dira. Sorkuntzan partehartzera bultzatuz, ikusmira sortzen da eta aldi berean euren gustoko gaiak jorratuko dituzte.

- *Aisialdi materiala:*

Materiala jakinean gaude bitarteko guztiz beharrezkoa dela ekintzak gauzatzerako orduan.

Material didaktikoa izugarri erabiltzen da, jolasak, abestiak, ikusentzunezkoak..., baina merkatua aztertuz gero gehiengoa erdaraz dagoela konturatzen gara.

Material hau euskaratu orduko modatik pasatua izaten da sarritan, edo eta askotan gertatzen da gaztelaniaz sortua izan delako, euskal kulturatik asko aldentzen dela; hau da, euskaldunen erreferentzi puntuak oso urrin gelditzen direlarik.

Sorkuntza propioa beharrezkoa da gure materialetan erreferentzi kulturalak agertu daitezen. Bestalde, herri mailan sortzen diren material trukaketa sistemak antolatzea ere beharrezko litzateke. Maiz, sortuta dagoena ere ez baita ezagutzen.

2.1.2.- AISIALDI NATURALA:

Inongo antolakuntzan parte hartu gabe igarotzen diren ordu kopuruak dira talde honetan sartzen direnak.



Bi multzo desberdinu dira, famili giroko aisialdia, eta lagunarteko aisialdia.

- *Famili giroko aisialdia:*

Familiaren izaera linguistikoaren arabera da funtzio normalizatzailea. Familia euskaldunak transmisioaren erantzuleak dira; familia mixtoak transmisioan ahalegina egin beharko dute, baina laguntza osagarria ongi etortzen zaie; familia erdaldunek berriz, kanpotik jaso behar izaten dute beharrezko guztia, baina azaltzen duten jarrera inportatea da.

Gaur egun, familiaren aisialdi jarrera gero eta indibidualagoa da, nahiz eta askotan indibidualki egiten diren ekintzetan aukera berdintsuetara jo.

Eskoletako guraso elkarte edo antolatutako aisialdi talde desberdinetan ere partehartze kopuru bat ematen da, eta honen inguruan sortzen diren familientzako ekintzak interbentzio guneak dira.

Bideak luzatu behar dira gune naturaletara, familia kopuru handiak erabiltzen dituzten espazioetan ekintzak antolatzeko. Eta bestalde, ekintza berriak sortu behar dira arlo desberdinetan familien arteko bilguneak lantzeko.

Euskal Herriko kulturaren barruan lagunarteak garrantzi handia izan du betidanik.

Lagunartean jorratzen den hizkuntza ohitura, maiz ohiko bizitzan erabiltzen den hizkuntza izaten da.



Gaztetxoek izakerari erdarak ematen dion protagonismo maila bera jakin behar du euskarak ematen. Haur eta gazteen artean euskara moda bihurtuz.

Espazio natural hauetan interbentziorako aukera erakargarri bat, eredugarri diren pertsonaiek, rockero, kirolari, telebistako pertsonai,.... euskararen aldeko mezuak eta jarrerak lantzea izango litzateke positiboa.

Haur eta gazteentzat gune naturaletan hitz egiteko kaleko hizkuntza ere sortzeko dago. Euskaldun berriak, batuera erabiltzeko lotsa adierazten dute eta euskaldun zaharrak euskalkia erabiltzeko gaitasun falta eta bestalde batuera erabiltzeko ere lotsa edo ohitura falta azaltzen dute. Hizkuntzarekin gustora identifikatzeko bideak landu behar dira.





3 .- AHULEZIAK ETA INDARGUNEAK

3.1. - AHULEZIAK:

3.1.1. - METODOLOGIAREN ZEHAZTAPENA:

15 urtetan, makina bat euskara elkarte jaio dira herri ezberdinetan, honekin batera, batzuk lehenago beste batzuk beranduago aisialdi arloan hasi eta ari dira lanean. Ohikoa da gure elkarteetan ekintzak egin ahala baloratzea edo eta intuizioz jokatzea, aisialdia euskara normalizatzeko tresna bezala darabilgunean ez baitakigu zein formula erabili behar den edo eta honek modu batera edo bestera erabilia zer nolako emaitzak ekartzen dituen.

Intuizioak eta borondateak sarritan emaitza honak ematen ditu, beste batzuetan berriz errepikatu beharra egoten da bide zuzena bilatu arte.

Ondo legoke esperientziak ematen dituen emaitzak jaso eta teorizazio batzurekin elkartrukatuz, aisialdia euskararen normalizazio tresna egokia eta azkarra izan dadin METODOLOGIA bat sortzea. Lan honetan ari diren elkarte, talde e.a.ek pista batzuk izan ditzaten eta baita material erabilgarri bat ere.



3.1.2. - AISIALDI MULTZOETAN OSAGARRITASUNA:

Ezin pentsa daiteke "euskal aisialdi" taideek besteriik gabe euskararen normalizazioa lortuko dutela.

Garrantzitsua da haur eta gazteen era guztietako aisia edo denbora librea betetzen edo dinamizatzen duten talde, entitate, elkarte, instituzio etabarrek euskaraz lan egin dezaten ziurtatzea eta euskaraz lan eginez gero ahal den eta gehien laguntzea, bai ekonomikoki eta bai moralki ere. Materiala euskaratuz, pertsonala euskaldunduz, etab.

Bestalde, interesgarria da bai herri mailan, bai probintzia mailan edo eta bai E.H. mailan aisialdi multzo ezberdinen arteko koordinazioa egotea.

Uste dugu plangintza orokor baten inguruan lan egiteko denok helburu berdinak baditugu norabide berean aritu behar garela. Beraz, elkarlana eta bata bestearekiko osagarritasunak aurrerapauso nabarmenak ekarriko dituelakoan gaude.

3.1.3. - BEGIRALEEN KALITATEA:

Jakin badakigu aisialdi munduan sarritan pertsonala jende gaztea izaten dela, ikasleak gehienetan.

Zergatia asmatzea erreza da, aisialdi saio ugari astean behin eta oso iraupen gutxikoak izaten dira larun-





batetan 3 ordu, astean zehar ordu pare bat etab...) beraz, lan honetara hurbiltzen denak ezin diezaioke eskusibitate osorik eskaini, eta horregaitik ikasleek dituzten ordu libreak lan honetarako erabiltzen dituzte.

Badaude beste ekintza edo eta gune batzuk berriz, dedikazio gehiago eskatzen dutenak (aste osoan ludoteka, gazte txoko edo eta zentru zibikoko langile izateak asteko makinatxo bat ordu eskatzen du), beraz, egun erdiko lan kontratua egin lezaioke sarritan.

Badira beste lan batzuk berriz, arlo honetan egun osoko dedikazioa eskatzen dutenak.

Perfil ezberdinetako langileak bereizten ditugu honakoan, baina bakoitzak daukan lana duina eta eraginkorra izanik ezinbestekoa da langilegoa ahalik eta profesionalizatuena izatea.

Euskal aisialdi taldeetako langilegoak, ezinbestekoa du beste edozein begirale edo animatzaileek jasotzen duten informazioaz gain, aisialdia eta euskara gaiak landuko eta sakonduko duen informazio eta formazioa.

Bestalde, oso garrantzitsua da, eredu ezberdinetako haur eta gaztetxoekin lanean ari garenez, erdal jatorrizko begiraleen aportazioaz aberastea; hau da, sarritan B eta A ereduko gazteek gertuago eta identifikatuago sentituko dira euskaldun zahar batekin baino; haurrek hauek egin zuten lana eta esfortzua mirestuko baitute, eta begiraleek, berriz, badakite partaideek egiten ari diren esfortzua baloratzen.



Gazte sensibilizatuak eta dinamikoak behar dira, euren lanaren garrantzia transmititu behar zaie, eta inoiz euren esfortzuari esker lortuko den emaitzaren ilusioa bizirik mantendu behar da. Honetarako begirale taldearentzat ere aisialdi ekintza motibagarriak antolatzea egokia izaten da.

3.1.4. - AISIALDIAREKIKO ONESPEN FALTA:

Jakina da gero eta gehiagotan entzuten dela aisialdi hitza.

Gizakiaren bizitzan gero eta gehiago apreziatzen da aisi denbora eta horregatik gero eta gehiago bultzatzen dira aisialdi hori betetzeko edo asetzeko ekintzak.

Garbi dago aisialdi denboran jasotzen diren ezagupen edo esperientziak ere oso aberasgarriak direla, eta gero eta sarriago probokatzen da honetarako denbora.

Horiek horrela izanik, esparru guztietan daude aisialdi denbora eta ekintzak, eta denok ari gara jabetzen poliki-poliki gai honen garrantzia gizakiaren ongizaterako edo eta beste helburu batzuk lortzeko izan daitezkeela. Baina instituzio mailan ematen al zaie benetan hartu duen garrantzia? Inbertitzen al da nahikoa, edo apostu seriorik egiten al da izan dezakeen eragina izan dezan?

Hainbat instituziok, aurrekontuak direla eta, murrizketak egiterakoan aisialdi arloan hainbat ikutu egin dituzte.



Aisialdiak gero eta garrantzi handiagoa izanik, nolatan utz dakioke aurrekonturik murriztenetarikoa urtez urte?

Beharrezkotzat jotzen dugu instituzioetako departamendu eta alor bakoitzean aisialdiari bere tartetxoa egitea, bere momentuan modu egoki batean erabili ahal izateko.

Gizarteak, orokorrean, arlo hau gutxietsita dauka. Gurasoentzat maiz aparkaleku funtzioa betetzen dute. Haur eta gazteak dira benetan esperimentatzen dutenak eta antolakuntzatik errentagarritasun handiena batzen dutenak. Etorkizunak emango ditu bere emaitzak.

3.1.5. - BALIABIDE ETA ERREKURTSO GABEZIA:

Begiraleak prestatzeko, lana egiteko eta aurrera pausoak eman ahal izateko baliabideak beharrezkoak dira, ezinbestekoak ez esatearren.

Esperientziak bildu behar dira, material berriak sortu, kanpoko esperientziak ezagutu eta ikerketak burutu.

Alde batetik, helburuak lortu ahal izateko zuzentzaileak materiala ezagutu behar du lanerako, hau da, jantzi beharra dauka inprobizazio hutsean eror ez dadin.

Aisialdi zuzendua ondo pasatu edo eta gustora egoteko bitartekoak jartzen saiatzen da, baina ezinezkoa





da baloi edo soka batekin mota guztietako haurrak eta adin guztietako gazteak asetzea, eta gainera helburutzat jarritakoak lortzea.

Bestalde, haur eta gaztetxoekin lanean aritzen den momentuan, material ugari behar izaten da - orde-nagailuak, jolasak, material fungiblea, tailerrak, abestiak, ipuinak, etab...-

Gizarteak eta teknologiak aurrera egin ahala, aisialdia ere modernizatu beharra dago. Ejenplu bat ipintzearren, nahiz eta Seat 600ak 4 gurpil izan eta motorra ibili garai honetan ez legoke horrelako auto asko saltzerik. Alde batetik, gaur egun auto ederragorik badagoelako eta; bestalde, ez dituelako betetzen gaur egun gizarteak eskatzen dituen ezaugarriak. Azkarra izan behar du, prestazio jakin batzuk behar ditu izan, etab...

Bai, badakigu autoan sartu eta behar duen tokira eramango gaituela, baina saltzen ez bada alperrik da, ez da erabiliko, eta salmentak ez du aurrera egingo .

Gaur egun kalean gero eta espazio murrizagoak daude pasiatzeko, jolasteko etab... Behartuta gaude leku itxietan biltzera eta aisialdia horrela pasatzera; beraz, euskaldun ditzagun dauden espazioak eta faltan badaude berriz, sortu, gune euskaldunak izan daitezen eraberean.



3.2. - INDARGUNEAK:

3.2.1. - HERRIAREN ONERITZIA, INPLIKAZIOA ETA PARTAIDETZA:

Aisialdia erakunde, entitate, batzorde etab. ezberdinekin antolatzen dute. Denok daukate beraien helburua eta, seguruenik, bakoitzak bere bezeroak oso ondo erakarriko ditu nahi duen ekintzetarako.

Ondo goaz! Esparru bakoitzak bere lana betetzen du eta benetan txalogarria da.

Bestalde, badago beste elkarte edo herri mugimendu bat, Euskara elkarteak, euskararen normalizazioa aitzaki nagusizat daukana, eta arlo bat nahiz beste bat aukeratzen duena lan egiteko.

Elkarte hau herri mugimenduaren ondorioa da eta herriko jendea da bultzatzailea.

Herriarena da inizatiba eta herriarentzako sortu da elkarte. Herritarrak dira erabakiak hartzen dituztenak eta ideiak markatzen dituztenak.

Herritarrengandik hain gertu egoteak erreztasunak ekartzen ditu herriak dituen beharrak detektatzeko orduan. Beraz, ondoren behar horiei konponbidea jartzeko ere herritarrak inplikatzea errezagoa da, ekime-nak errezago bideratzekoak dira.



Bestalde, elkarte hauen indarra handia da herriko beste edozein erakunde biltzeko orduan, eta koordinazio lanak egiteko erreztasunak ditu. Konturatuz gero, erakunde hoiak, edo eta bertako pertsonak elkarrekoak baitira eta elkartasunean sinisten dute: Elkarte honek ez dauka kolorerik, txuria, beltza eta urdinak batera lanean dihardute helburuaren atzetik.

Herriko bazter guztietara iristeko gaitasuna eta ahalmena du eta bide batez, herriko edozein pertsona bertara hurbiltzeko bitarteko oso errazak jartzen ditu.

3.2.2 - AISIA BIZITZAKO EDOZEIN ESPARRUTAN EMAN DAITEKE:

Aprobetxa dezagun! Aisialdia leku guztietan dago: ikastetxeetan (ekintza estraeskolarrak, jangela,...); lantegietan (heziketa fisikoa, saioak,...); kalean (tabernak, txokoak,...); eritetxeetan (liburutegia, harrera gela,...); udaran (udalekuak, pizina...). Eta horrelako toki bakoitzean lanean aritu gaitzke, gure bizitzako %eko portzentai garrantzitsu batean sortzen baita aisialdia guk parte hartzeko eta disfruta dezagun.

Gure bizitzan sartzen bada zer esanik ez besteenetan, beraz, guneak sortuak daude, edo berriak sortu behar dira lanean aritzeko.

3.2.3. - INDAR EZBERDINEN KOORDINAZIOA:

Badira lau faktore oso garrantzitsuak direnak euskalgintzan:



HEZKUNTZA-FAMILIA-ERAKUNDEAK-AISIALDIA

Faktore hauek, alde batetik inzidentzia puntuak dira euskararen erabilera bultzatzeko, gehienbat HEZKUNTZA, FAMILIA eta AISIALDIA.

Bestalde lau faktore hauek oso inzidenteak direla ere esan daiteke, familiak, aisialdi metodologikoak, hezkuntza sistemak eta erakundeek ere, lan ikaragarria egin dezakete euskalgintzan bakoitzak bere lana edo bitartekoak erantsiz.

Esan dezagun bi eratako lana egiten dutela, alde batetik, landatzeko hazia ematen dutelako eta; bestalde, bakoitzean badagoelako hazia non landatu ere.

Lau puntu estrategiko dira, bata bestearekin konbinatuaz eta osatuaz emaitza interesgarriak eman ditzaketenak.

Uste dugu, gaur egun bakoitza bere aldetik konsziente dela euskalgintzan aportatu dezakenarekin eta lanean ari dela dagokion esparruan.

Hala ere, beharrezkoa denean, 1,2,3 eta 4 faktoreak elkarlanean aritzen dira, ematen den koordinazioa errentagarria izanik.



3.2.4. - SAREEN INTERBENTZIOA:

Gizakiak bizitzeko duen eragatik behar batzuk sortzen ditu. Beharrak era askotakoak izan daitezke, oinarrikoak, bigarren mailakoak edo eta hirugarren mailakoak.

Euskararen gaia ez da izan behar gizakiaren ohiko bizitzatik kanpo hautatzeko egon behar den aukera bat, baizik eta eguneroko bizitza errealean beste bizi une, momentu, edo eta ekintzekin nahasturiko eta bateginiko tresna erabilgarri bat.

Beraz, kontura gaitzen "euskarak" bakarrik ez duela bere bururik saltzen, beti joan beharko dela haurrentzako izozki goxoetako paperetan, zapata dotoretako kajetan, luzemetrai politetako hasieran, haurrak zaintzen dituen pertsona lirain eta zerbitzari horren ahoan, ejekutibo potolo horren ajendan eta askoren patriketan ibiltzen den aspirina kaxetan.

Guzti hauek errealitate bihurtzea da euskalgintzan dihardugunon eginbeharra. Zer behar dagoen... , ba horixe euskaraz eskaini, besterik ez.

Aisialdi elkarteok, errealitatearekin dugun hurbiltasunari esker, herri mailan gauza berri bat sortu behar denean, erreztasun handia daukagu aukera, proiektu edo zerbitzu berriak eskaintzeko.



4.- PROPOSAMENAK:

Aisialdi esparruaren erantzunkizun maila eta dagokion esparruaren definizioa dira eman behar diren lehen urratsak, arlo hauek hizkuntzaren normalkuntza helburura bide zuzenetik iristeko.

Esperientzian oinarrituriko proposamenak biltzen ausartu gara:

Bakoitzak bere herriko errealitateari irtenbidea aurkitzeko gaiarekin sesibilizatuta dagoen jendearekin indarguneak sortzen saiatu, beti ere multzoa osatzerakoan adin, lanbide eta ideologia aniztasuna bultzatuz. (Gazte, irakasle, guraso,...).

Lantaldea osatu ondoren, herriaren oniritzia eta babesa jasotzen saiatu beharko da, **esparru desberdinekin elkarlana** errealitate eginaz.

Elkarlanak sortzen dituen beharrei erantzun egokia ziurtatzeko, ezinbestekoa da, **begirale prestatuak, eta lan metodologia egokia eta eguneratua sortu** eta mantentzea.

Baliabideak aberastu, inguruan daudenak baloratu, erabiltzen ikasi eta programazioen berriztapena izan behar dira eguneroko lana; eta honi aurre egiteko, errekursoak ere lortu beharko dira nonbait. (Herri mailako kulturgintza erabili eta sortzeko jarrera bide errentagarria da).



Aisialdi multzo desberdinetan, sensibilizazio eta kontzientziazio mailak errealitate bihurtu behar dira. Lortu nahi den helburuaren alde lanean jarriz, eta multzo desberdinen ahaleginari esker, esparru honen erantzunkizun osoa lortuz. Arlo bakoitzean irtenbentzioa egiteko modua, eta lan honen erantzunkizuna norena den, definitu beharko da.

Aisialdi eskaintzak profesionalak, espezializatuak, konpetitiboak eta kalitatezkoak izaten ahalegindu beharra dago; gai honetan kultura masiboagoek dutenen gaitasunaren aurrean eskaintza erakargarriak sortuz; beti ere, herri elkartearen filosofia eta norabidea kontutan izanik.

Esparru honetan diharduten guztien arteko koordinazio bideak lantzea, behar beharrezkoa da esperientzia eta balorazio trukaketak egiteko, akatsen errepikapenak gutxitzea denontzat errentagarria izango delako.

Txostenean aipatu diren ahuleziak indartu behar dira, hauen irtenbideak helburu bihurtuz, eta indarguneei ahalik eta etekin haundiena ateratzen saiatuz.

Aisialdiak, euskararen normalkuntzan esparru garrantzitsua duela gizarteratuz gero, eta lan horretan dihardutenei bere lekua emanez gero, bere emaitzak emango ditu.

Familia - Hezkuntza- Aisialdia- Erakundeak, beste indar guztiei elkarlanak eta norabide bideratuek euskarari bizitzeko espazio gehiago eta berriak emango dizkiote.





AHULEZIAK

INDARGUNEAK

IKASTETXEKO AISIALDIA

- Sarritan borondatezko jendeak - euskaraz jakin ez.
- Aisialdi antolaketa eta koordinaziorako ajenteen beharra

- Interbentzio puntu konkretuak dira.
- Lan osatua egiteko aukera.
- Ikastetxe barruan/kanpoan.
- Oinarrizko kultur sorkuntzarako espazio egokia.

EKINTZA EZ ARAUTUA

- Sarritan zerbitzu partikularrak direnez interbenitzeko zailak dira.
- Irakasle dibertsitatea (eus/erd) eta perfilik betebeharrak ez.

- Jende asko biltzen du eredu ezberdinetan.
- Prestigiozko ekintzak dira.
- Hartzaileek eskatuaz lortu ahal izango lukete.

KIROLA

- Sarritan borondatezko jendeak euskaraz jakin ez.
- Kirol terminologia lortzeko modu gutxi euskaraz.
- Tb-tan kirol asko erdaraz. Hiztegi ikasia.

- Kirol hiztegi eta materiala euskaratzen ari gara poliki-poliki.
- Jende ako mugitzen duen ekintza pasiboak/aktiboak.
- Herri kultura dela esan daiteke.



KULTUR IKUSKIZUNAK

- Hurrei zuzendutako asko ez daude
- Zinea, pelikulak euskaratu orduko pelikula zahartu egiten da.
- Euskal kultura plasmaturako duen euskal produktio gutxi daude.

- Gazteentzako zuzendutako gehienak euskaraz.

AISIALDI ESPAZIO ZUZENDUAK

- Bakoitzak nahi duen hizkuntza erabiltzen du elkartean.

- Haurrentzat izanik normalean euskaldunak edo elebidunak dira.
- Mobida polita eginez gero kaleko jendea kaptatzeko egokia.
- Nahi den auzo edo puntuetan kokatu ahal dira.

ELKARTEGINTZA

- Legez, hizkuntza bakarra erabiliz nahikoa izaten da. Beraz erdara erabiltzea oso posiblea da.

- Zenbat eta gehiago kultura aberatsago eta herritarren ikuspegi zabalagoa.
- Edozein herritarrek parte hartzeko aukera dauka.



KOMUNIKABIDEAK

- Hizkuntza kontrola ezartzeko zaila da.
- Saio honenatarikoak eta erakargarrienak erdal kateetan.
- Oso kate gutxi euskaraz

- Herri komunikabideak sortuz, gehienak euskaraz izaten dira.
- Euskararen faktore aktibo bezala erabiltzeko aukera.
- Jendearengan eragin izugarria daukate.

AISIALDIKO MATERIALA

- Gehiengoa erdarazkoa da.
- Diru iturri inportantea behar da itzultzeko edo eta sortzeko

- Euskaratzeko erreza da materiala.
- .- Dagoena erabiltzen da, beraz, sortuz gero erabiliko litzateke.

GUNE NATURALAK

FAMILIA GIROKO AISIALDIA

- Guraso ugari kontzientziatu gabe dago.
- Gurasoek haurrengan eragin zuzena daukate.

- Euskarazko zutabea izanez gero euskarri pusgarria.

LAGUNARTEKO AISIALDIA

- Esparru kontrolaezinak.
- Sarritan iristeko zailak.

- Talde naturalen kabia.

